


# HORRELA GOAZ



Ilaipeko ur tantak  
tap tap  
astiño dira azaleratzen

goroldio hezearen ferekaz  
ibarrean beheti  
poliki zein umil  
erreka bilakatuz  
ama izadia joanean agurtuz

Ardien basoko aska  
otsoen bainutoki  
jauzika eta ijika kardantxuloek  
musikaz dute jazten  
bidean uzten duzun errainua

Izarren ispilu dizdiratsu  
etenik gabe zoaz aintzinerat  
ba zoaz erreka ausarta  
erreka  
erre  
errrrrr  
doinu kuttun hori  
azken finean izango da azken

Lau diru-zurruparik  
azido sulfurikoz  
pozoinduko zaituzte  
eta zu bizi egarriz

RIP RIP RIP  
itsasoratu baino lehen  
RIP RIP  
lau horien ohgizatearen zerraldoan.

( MUNTAR )